

OHAR GARRANTZITSUA: BERRIRO HASIKO DA PROZEDURA IZAPIDETZEN. ESKAERAK AURKEZTEKO EZOHICO NEURRIAK

Berriro hasiko dira prozedurak izapidetzen eta administrazio-epeak zenbatzen. Eskabideak aurkezteko geratzen den epea: **2020ko ekainaren 1etik 5era** bitartean.

Maiatzaren 22ko 537/2020 Errege Dekretuaren 9. artikulua, alarma-egoera luzatzen duenak, ondorioz gabe utzi ditu, 2020ko ekainaren 1etik, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian ezarritako epemugak etetea eta administrazio-epeak etetea (COVID-19k eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratu du dekretu horrek).

Ondorioz, eskabideak aurkezteko deialdia argitaratu eta 15 egun naturaleko epea berriro hasiko da zenbatzen (16. oinarria). Deialdia 2020ko martxoaren 4an argitaratu zenez Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean, eskatzaileek 5 egun naturaleko epea izango dute eskaerak aurkezteko, 2020ko ekainaren 1etik 5era, biak barne.

Eskarrien aurkezpena.

COVID-19k eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoerak eragindako ezohiko egoera dela-eta, ahal dela, UPV/EHUko Egoitza Elektronikoa dagoen **Erregistro Elektronikoa** erabiliko da. Horretarako, Ikerketaren arloko Errektoreordetza aukeratuko da hartzaile gisa, eta eskatutako dokumentazio gehigarria erantsiko da (<https://egoitza.ehu.eus/egoitza/erregistro?check=ok&langId=eu>).

Ez da gomendatzen UPV/EHUko erregistro-bulegoak erabiltzea, ez eta posta-bulegoak ere, dokumentazioa paperean aurkezteko. Hala ere, erregistro-bulegoak erabiliz gero, kontuan izan behar da 2020ko maiatzaren 26tik aurrera alde aurretik hitzordua eskatuta baino ez dutela erantzun, 09:00etatik 13:00etara (<https://www.ehu.eus/documents/2989329/0/resoluci%C3%B3n-apertura-registro/ce79f8fc-f879-dc8e-3aa9-582d54cbc393>).

Leioa, 2020ko maiatzaren 29a.

IKERKETAKO DEIALDIEN ATALA
IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA